



**OH EUN-SUN KOREARRAK ANNAPURNA IGO DU**

Kontrakoa frogatzen ez bada 14 zortzimilakoak igotzen lehen emakumea da; Pasaban Alaba Kuttun izendatu dute 2

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

**hitza**



**Asteazkena  
2010-04-28**

VIII. URTEA 1986. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

# 750 behi, 18.500 ardi eta 750 behor igoko dira Aralarko larreetara

**ALBALTZISKETA** Larunbatean larreak irekitzeko festa izango da Larraitzen egun osoan zehar

**BERRIKUNTZAK** Aurten Ardi Moztaileen Desafioa eta behor eta zaldien Gipuzkoako lehiaketa egingo dituzte 4



Nagusilaneke eskualdeko boluntario batzuk, Joxe Agustin Arrieta eta Jokin Bildarratzekin batera. I. TERRADILLOS

## ADINEKOEK DITUZTEN HUTSUNEAK BETAZ

**TOLOSA** Nagusilan gobernuz kanpoko erakundea iritsi da jada eskualdera; 15 lagunez osaturiko taldea sortu dute 2

## Amezketak, Albiztur, Alegia eta Tolosak irabazi dute

**PILOTA** Sei herrik hasi zuten Herriarteko Txapelketa; Villabonak Albizturren aurka galdu zuen eta Bidegoianek ez zuen Oiartzun garaitu 7

**IBON ARTOLA** EUSKAL HERRIA SOZIALISTAKO KIDEA

«Langileen zatiketak enpresariei bakarrik egiten die mesede»

**TOLOSA** 'Kapitalisten erasoak eta langile mugimendua' hitzaldia eskainiko du 19:30ean 3

**-50% -40% -35% -20%**

**LIKIDAZIOA**

ERAKUSKETA ALDARAKOAGAIK

**BASOKO**

ALTZARIAK

larrea auzoa s/n poligono 34, 2  
20150 billabona gipuzkoa  
tfn.: 943 692 965

[www.muebles-basoko.com](http://www.muebles-basoko.com) [mueblesbasoko@yahoo.es](mailto:mueblesbasoko@yahoo.es)

# Nagusilan hasi da Tolosaldean lehen urratsak ematen

**Gizartea** » 15 lagunez osaturiko taldea sortu dute; datorren astean hasita adinekoekin aritzeko ikastaroa antolatu dute.

## INIGO TERRADILLOS

Duela 15 urte sortu zen Nagusilan adineko jendearen ondoan egon eta behar duten berotasuna emateko helburuz. Gobernu kanpoko erakunde honek Donostia inguruan eta Goierri, batik bat, egin du lan, eta Tolosaldean orain hasi da lehen urratsak ematen. Izan ere, dagoeneko 15 lagunez osaturiko taldea egin dute, eta datorren astean hasiko den sentsibilizazio eta formakuntza ikastaroa egin ostean pixkanaka eskualdeko adinekoek dituzten hutsuneak betetzen saiatuko dira.

## Sentsibilizatu eta formatu

Antolatzen duten ikastaro honen parte hartuko duten kideak sentsibilizatu nahi dituzte «egitera doazen lana oso garrantzitsua dela

azalduz». Halaber, formakuntza ere emango zaie, adinekoekin lanean ari direnean behar dituzten baliabideak eta ezagutza izan dezaten. Joxe Agustín Arrieta Tolosako Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak atzo eginiko aurkezpenean azaldu bezala, «ikastaroaren bidez, boluntarioen komunikatzeko gaitasunean eragin nahi dugu, eta gaitasunez gain, norbere mugak ezagutzea ere nahi dugu. Azken batean, gizarte ekinga hau indartzea da helburua, beharrezkoa dutenen bizi kalitatea hobetze aldera».

## «Erakundeek betetzen ez duten hutsunea»

Hau guztia adinekoekin lan egiteko jakin beharreko teoria eta praktikarekin osatuko da, eta parte hartuko duten boluntarioen artean hitz eginez, eztabaidak sortuz eta denen artean ondorioak ateraez. Ikastaroan zehar boluntarioen lana zehaztuko da, komunikazioaz hitz egingo da, edota dementsia, depresioa eta antsietateaz ariko dira, besteak beste.



Nagusilaneako eskualdeko boluntario batzuk, Joxe Agustín Arrieta eta Jokin Bildarratz, atzoko aurkezpenean. I.T.

Jokin Bildarratz Tolosako alkatteak boluntarioek egiten duten lana goraiatu zuen: «Gizartea handi eta sendo egiten da gizartea osatzen dutenen artean lana egiten bada, izan ere, erakundeetatik dirua eta baliabideak jartzen ditugu, baina askotan harremanak, berotasuna edota gertutasuna bezalako hutsuneak egoten dira, hau da, sentimenduei dagozkienak, eta horiek boluntarioek betetzen dituzte».

## Denbora eduki eta lagundu nahi izatea

Izema eman duten eskualdeko 15 lagunez gain, adinekoekin lagundu nahi duen edonork parte hartu ahaliko du ikastaroan, atek irekiak baititu Nagusilanean. Ikastaroa maiatzaren 4an hasiko da, eta maiatzaren 13an bukatu. Sei egunetan banatuko da, 18:30etik

20:30era, Tolosako Kultur Etxean, eta Hezkide eskolako kideek emango dute.

Nagusilaneako boluntarioak hirugarren adineko jendea lagundu nahi duten herritarrak dira. Gehienak erretirodunak dira, baina edozein adineko jendea izan daiteke boluntario. «Baldintza bakarrak denbora edukitzea eta lagundu nahi izatea dira», azaltzen du Arrietak. Izema ematen dutenek astean bi ordutan behintzat laguntzeko konprometua hartzen dute.

Tolosaldearen kasuan, ikastaroa bukatzearekin batera hasiko dira pixkanaka lanean. «Adinekoen ondoan egon, hitz egin, paseatu... hori izaten da egiteko nagusia, eta kalean, Iurreamendi egoitzan, Eguineko Zentroan, Gerontologiko berrian edota beste espazioaren batean egin daitezke». Arrietak gaineratzen duen bezala, «gizarte

## » DATUAK

- **Zer.** Nagusilanean boluntario izateko ikastaroa.
- **Noiz eta non.** Maiatzaren 4, 5, 6, 11, 12 eta 13. Kultur Etxean, 18:30etik 20:30era.
- **Izema-ematea.** Tolosako Udaleko gizarte zerbitzuetan (943 69 74 60). Doan.
- **Helburua.** Sentsibilizazioa eta formatzea gaiaren inguruan.

zerbitzuetako langileen lanaren osagarria da, inoiz ez ordezkatzalea».

Bereburua boluntario lan hauek egiteko gai ikusten duen orok udal txeko gizarte zerbitzuekin harremanetan jarri behar du izena emateko. Halaber, Nagusilaneako boluntarioen beharra dutenek ere gizarte zerbitzuetara jo dezakete eskaria egite aldera.

# Oh Eun-sun korearrak Annapurna igo du

**Mendia** » 14 zortzimilakoak igotzen lehen emakumea da; Pasabanean zoriandu egin du, baina denborak esango duela adierazi du.

## ERREDAKZIOA

Euskal Herrian goizeko hamaikak eta laurden pasatxo zirela zapaldu zuen atzo Oh Eun-Sun 44 urteko mendizale korearrak Annapurnako gailurra, beheko kanpalekutik abiatu eta 13 ordura. Hala jakinarazi zuen Yonhap agentziak, eta Hego Koreako KBS telebista zuzenean eman zuen iritsiera. Ondo-

rioz, korearra da munduko 14 zortzimilakoak igotzen lehen emakumea.

«Poz hau Hego Koreako herriarekin partekatu nahi dut. Eskerrik asko», esan zuen Oh Eun-Sunek. Urrian ere saiatu zen Annapurna igotzen, baina hartan ez zuen lortu. 1997ko uztailean lortu zuen aurreneko zortzimilakoa: Gasherbrum II (8.035 metro). Munduko gailurrik handiena —Everest, 8.848 metro—, 2004an igo zuen.

## Biren arteko lehia

Edurne Pasaban tolosarrak ere helburu bera du, baina Oh Eun-Sunek hartu diola aurrea esan daite-

ke. Hain zuzen ere, une honetan Shisha Pangman da Pasaban, gailurrera igotzeko prestaketa lanean. Atzo iritsi zen tolosarra oinarritziko kanpaleku txinatarrena, eta bertan jakin zuen korearrak gailurra egin duela, eta zoriandu egin zuen lortutakoarengatik. Halaber, berak eta bere taldekideek euren lanarekin jarraituko dutela eta «denbora izango dela esango duena» adierazi zuen.

Bimendigoizaleek lehiagorria izan dute 14 zortzimilakoak lortzeko azken txanpan, eta elkarrenganako zalantza eta mesfidantzak ere agertu izan dituzte. Hain zuzen ere, Edurne Pasabanek zalantza jarri zuen joan den astean aurkari korearrak Kangchenjunga igo zuela.

## Tolosako Alaba Kuttun

Bestalde, Tolosako Udalak herriko Alaba Kuttun izendatu du Edurne Pasaban. Hain zuzen ere, atzo onartu zuten izendapena Osoko Bilkuran.

Udalak adierazi duenez, «Tolosako herriak Edurneren ibilbide osoa emozioz jarraitu du, haren alboa, eta errekonozimendu honen bitartez, herritarren esker ona, babesa eta harrotasuna adierazi nahi dio mendizaleari».



Edurne Pasaban Annapurnako tontorrean. RTVE 'AL FILO DE LO IMPOSIBLE'

Izendapen ekitaldi ofiziala ekainean egingo dute, Pasaban Tolosan bertan delarik.

## Zuzeneko konexioa

Une honetan Shisha Pangman dago tolosarra, bere azken zortzimilakoa egin asmoz. Bada, bihar, zuzeneko webcam konexioa egingo dute Usabal kiroldegian berarekin eta bere espediziokideekin, eta

non eta nola dauden ikusteaz gain, animatzeko aukera egongo da. Mendigoizale tolosarrekin 12:00etan egingo dute bat, eta kiroldegira gerturatzen den edonork hartu ahaliko du parte. Tolosako ikastetxeetako haurrak, esaterako, bertan izango dira, «mendizale tolosarrari herritar guztien babesa eskaintzeko asmoz».



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**E Elkarrizketa**

**IBON ARTOLA** › Euskal Herria Sozialistako kidea

**Tolosa**» Euskal Herria Sozialistak eta Engels Ateneoak, azken gune honetan, liburu aurkezpenak eta hitzaldiak antolatu ditu aste honetan.

**ASIER IMAZ**

Aste Iraultzailearen baitan Ibon Artolak (Anoeta, 1980) hitzaldia eskainiko du gaur, 19:30ean, *Kapitalisten erasoak eta langile mugimendua*-ren inguruan.

**'Kapitalisten erasoekin' zer esan nahi duzu?**

Kapitalisten erasoak mota ezberdinetakoak dira eta krisiarekin areagotu egin dira. EEEak (Enplegu Erregulazio Espedienteak), kaleratzeak, enpresa itxierak, gastu sozialen murrizketak osasunean eta hezkuntzan, azken lan eta pensio erreforma, gazteentzako kotizazioerik eta langabezia eskubiderik gabeko kontratuaren proposamena... zoritxarrez zerrenda luzea da. Hauek guztiak eraso oso konkretuak dira baina ezin dugu ahaztu kapitalismoak mundu mailan eragiten dituen gainontzeko basakeriak, tartean pobrezia eta gosea.

**Kapitalismoak dena txarra al dauka? Ez al dauka ezer onik?**

Iraganean kapitalismoak jokatu zuen paper aurrerakoi bat. Erregimen zaharrak eta feudalismoa suntsitu zituen eta ekoizteko indarrak aurreko gizarte guztiek batera baino askoz gehiago garatu ditu, gizarte sozialista bat eraikitzeko baldintzak sortuz. Hau izan da bere paper historiko garrantzitsua. Baina gaur egun, kapitalisten arteko borrokaren ondorioz ikaragarri oztopatzen da teknologiarren garapena ere.

XIX. mende bukaeratik aurrera bukatzen joan zen kapitalismoaren lehenago jokatzen zuen paper aurrerakoa. Lehen eta Bigarren mundu gerrek kapitalismoaren dekadentziaren erakusgarri izan ziren. Potentzia kapitalista imperialisten merkatu goseak garbi utzi zuen zertarako gai zen kapitalismoa. Marxek azaldu zuen orain dela 150 urte inguru kapitalismoaren garapenarekin pobrezia handitzen joango zela eta datuak ikusi besterik ez daude hori egia dela frogatzeko. Kapitalismoaren motora gutxi batzuen irabazi maximoa da, eta ez herritarren beharren arabera ekoiztu, banatu eta

**» EKITALDIAK**

**Engels Ateneoan, 19:30ean**

■ **Gaur, hilak 28.** 'Kapitalisten erasoak eta langile mugimendua' hitzaldia.

■ **Bihar, hilak 29.** 'Nikaraguako iraultza sandinista' hitzaldia.



ESTI EZEIZA

# «Batasun sindikalerako egun aproposa litzateke maiatzaren 1a»

antolatzea. Ezer onik izan dezake agian urrezko komonetan kaka egin dezaketek aberats horientzat baina munduko herritarren gehiengoarentzat mehatxu bat da bizi duin bat izateko edo baita bizirauteko ere.

**Langile mugimendua ez al da XX. Mendeko termino bat?**

Ezetz esango nuke. Orain langabezia ikaragarri hazten ari den arren esan genezake historiak izan duen langile klase handiena duela munduak azken urte hauetan, kopuruz eta portzentatuetan. XX. mendeko urte gehienetan AEBtan, Europan eta Japonian bakarrik aurki genitzakeen langile mugimendua indartsuak. Gaur egun ordea, langile borroka garrantzitsuak ematen ari dira Txinan, Indian, Tailandian, Egipton, Nigerian, Hego Afrikan, Venezuelan, Brasilen... baina ezin dugu ahaztu aldi berean handitzen

ari dela AEBko, Europako eta Japoniako mobilizazio kopurua. Europan esate baterako, mobilizazio jendetsuak eta greba orokorrak ikusi ditugu azken urteetan Estatu frantziarrean, Italian, Portugalen, Belgikan, Suitzan, Grezian, Danimarkan, Austrian, Irlandan eta ekialdeko herrialdeetan, eta tartean maiatzaren 21eko Euskal Herriko greba orokorra eta erreformen aurkako azken mobilizazioak. Datu esanguratsu bezala esan Grezian 10 greba orokor baino gehiago egon direla azken 6 urteetan. Gure ustetan, langileek ekoizten kapitalistan jokatzen duten paperagatik, langile mugimendua da kapitalismoaren aurkako borrokaren oinarria; ahaztu gabe gairontzeko sektore zapalduak ere funtsezko garrantzia dutela borroka honetan.

**Klase indarra ez al du ongizate-**

**ren gizarteak irentsi?**

Garbi daukagu langile klasearen indar potentziala inoiz baino handiagoa dela. Greba orokorretan ikusten da zenbaterainoko potentziala duen langile klaseak, grebak jarraipena izan ezkerreko gizarteak ez baitu funtzionatzen eta kapitalistak egoera horren aurrean erabat ezigaituta azaltzen dira. Potentzialaz gain langile klaseak antolakuntza egoki bat behar du, programa iraultzaile bat eta metodo iraultzaileak defendatzen dituen. Guk uste dugu honetan dagoela gakoak eta ez langileen ahulde edo borrokarako gogo falta abstraktuan.

Bestetik, aurreko urteetako hazkuntza ekonomikoak izan du eraginik noski langile askoren buruetan. Bazirudien posible zela kapitalismoa beti gorantz joatea eta gero eta bizi kalitate hobetoago bat lortzea baina amets horiek ezerezean geratu dira. Langileak, errealitatea ikusteaz gain beren larruetan ari dira sufritzen krisia, eta ez dute dudarik egin eta ez dute egingo borroka eragin korretan parte hartzeko.

**Zer egin daiteke kontzientziak pizteko?**

Langileen kontzientzia pizteko edo indartzeko modua borroka ideologikoa eta antolakuntza bultzatzea da. Lan hau bultzatzearen arduradun nagusiak ezkerreko alderdi, sindikatu eta eragileetako zuzendaritzak dira. Guk antolatu

ditugun hitzaldiek izan dezakete eraginik langile batzuen artean, baina langile klasearen erakunde tradizionalak modu sistematiko batean bultzatuko balituzte borroka ideologikoa eta antolakuntzaren beharra ikaragarri azkartuko litzateke langileen kontzientziario prozesua.

**Maiatzaren 1ean sindikatuak bere aldetik irtengo dira kalera.**

Langileen zatiketarik patronalari eta enpresariei bakarrik egiten diete mesede eta horregatik beharrezkoa dasindikatu guztiek langileen batasunaren aldeko lana egitea. Dudarik gabe, maiatzak 1a egun aproposa litzateke batasun hori emateko. Sindikatu ezberdinetako kideei egin zitzaie inkesta baten emaitzak azaltzen zuen, sindikatu guztietako kideen gehiengo batasun sindikalaren alde dagoela. Gure ustez ere hori da bidea. Noski, ez da beti posible izango baina lan helburu horretan egin beharra dago. Praktikan ikusten dabatik bat Euskal Herriko lau sindikatu nagusiek, ELA, LAB, UGT eta CCOO antolatu dituzten grebek babes handia izaten dutela. Hori da bidea, sindikatuen eta langileen batasuna.

**Zeintzuk dira aipatzen duzuen aldaketak horren oinarriak?**

Sistema ekonomikoaren aldaketa defendatzen dugu guk. Hau da, beharrezkoa da kapitalismoarekin bukatzea eta denen bizi baldintzak etengabe hobetu ditzakeen gizarte bat eraikitzea. Horretarako beharrezkoa da bankuak, enpresa handiak eta latifundioak desjabetzea eta hauek langileen kontrolpean jartzea. Horri esker posible izango litzateke ekonomia herritarren beharren arabera planifikatzea. Eta ekonomia planifikatuak modu egoki batean funtzionatzeko beharrezkoa izango litzateke herritar guztien parte hartzea eta kontrol demokratikoa gizartearen kudeaketan, gaur egun erabat ezinezkoa dena bankuak eta enpresa handiak esku pribatuetan baitaude. Ekonomia planifikatuaren eta langile demokraziaren garapenari esker baldintzak sortuko lirateke sozialismoa eraikitzeko eta orain arte bizi izan ditugun basakeria guztiak iraganeko zakarrentzira botatzeko.

**Iragarki laburrak**

**LAN ESKAINTZA**

■ **Mutil gaztea.** Mutil euskalduna behar da lanerako. 25-30 urte bitartekoa. Deitu 13:00etatik 15:00etara ondorengo telefono zenbakira: 649 51 09 41.

**AURKUTUTAKOA**

■ **Ibarran.** Perikitoa edo loritua aurkitu dute Ibarran. Buru laranja dauka, gortutza berriz berde-urdi-na. Deitu: 609 47 30 81.

**Zuzenketa.** Igandeko zenbakian III. Nañarri Rallyspringtean bildutako dirua Anoetako Ikastolarentzat zela jartzen zuen, Iruako Ikastolarentzat beharreen.

# Larunbatean Aralarko Larreak irekitzeko festa izango da Larraitzen

**Abaltzisketa** » 10:00etan hasita festa giroa izango da, besteak beste, erakusketak eta lehiaketak izango dira.

## ENERITZ MAIZ

1998. urteaz geroztik, urtero urtero, Aralarko Larreen irekiera festa ospatzen da Larraitzen. Langilearen Eguna aukeratu zuten, hau da, maiatzaren 1a, atek zabaldu eta animalia guztiak neguko hotzak hasi bitartean, Aralarko zelai berdeetan ibiltzeko aukera izan dezaten.

Enirio Aralar Mankomunitatea eta Foru Aldundiaren artean antolatzen dute eguna eta Abaltzisketa Udalari lekua uztea baino ez zaio suertatzen. Enirio Aralar Mankomunitatea inguruko 15 herri osatzen dute eta hasiera batean, bertako artzain eta baserritarrek soilik izaten zuten ganaduak Aralarra igotzeko aukera. Jose Antonio Irastortza basozainak azaldu digu: «Gaur egun, zabaldua dago aukera eta Oartzun, Errezil, Errenteria edota Azpeititik ekarzen dituzte abereak. Zehaztuak dauden legeak bete behar dituzte eta beti ere, artzain eta profesional izan behar dute» argitu du.

Aralar itxita dagoen hilabeteetan mendiar atsedena ematen zaio. Horrela, artzain eta ardiek kalitate hobea izaten dute, maiatzaren igotzen direnean.

Egunari hasiera 10:00etan emango zaio bertan ikusgai egon-



lax, Aralarko larreetara joateko langa zabaldu zutenean, behiak mendirako bidea hartzen. IÑAKI GURRUXAGA

go diren postuen irekierarekin. Jai giroan sartzen hasteko, trikitilariak ibiliko dira festagunean zehar. Erakusketen artean, alde batetik abereena izango da astoak, behiak, behorrak, ahariak eta ardiak ikusi ahal izango direlarik, besteak beste. Artisautza saioak ere izango dira -artilea, saskiak, harria lan-

**Larunbatetik aurrera Aralarko larreetara 750 behi, 18.500 ardi eta 750 behor igoko dira**

tzea... eta ohiko tresnen erakusketak ere egingo dute. Bestalde, bertako produktuak erosteko aukera izango da eta besteak beste, ardi eta ahuntz gazta, baserriko ogia, taloa,

sagardoa eta orein produktuak eskuratu ahal izango dira.

Aralarko mapa, liburua eta liburuxka ere salgai egongo dira inork erosi nahi izanez gero. 11:00etan, *Benta Zaharreko Mutiko Alaia* musika taldea izango da festa gunean barrena, jai giroari jarraipena emateko.

Ardiak, behorrak eta behiak izaten dira Aralarko larreetara igotzen diren abereak. Aurten guztira, 20.000 abere inguru izango dira: 18.500 ardi, 750 behi eta beste 750 behor. Maiatzaren lehenarenkin batera atek zabaldu eta artzainak lagun dituztela mendirako bidea hartuko dute. Udazkeneko hotzak hasi bitartean, udako ordu luzeak bertan igaroko dituzte.

Larreak irekitzeko, 12:00etan,

suziria botako dute. Ondoren, berrikuntza bat sartu dute, Ardi Moztaileen Desafioa izango da: Jesus Mari Goitia *Egoarre* eta Miguel Mari Sagatume *Aimendi* ariko dira antzinako erara, *argoraiziek*in ardiek ilea moztzen. Irastortzaren esanetan, «bi amezketar dira eta oso ekitaldi xumea den arren, sal-

**Ardi moztaileen desafioa antzinako erara izango da 'argoraiziek' eta 'Aimendi' ariko dira**

tsa sortzeko egokia da». Eta ondoren Mikel Mendizabal eta Bixente Gorostidi bertsolariak, *Benta Zaharreko Mutiko Alaia* eta trikitilariak ariko dira. 14:30ak aldera goi-

## » LARRE IREKIERA

### Maiatzak 1, larunbata

- **10:00etan.** Postuen irekiera eta trikitilariak festa gunean zehar.
- **11:00etan.** *Benta Zaharreko Mutiko Alaia* musika taldea.
- **11:30ean.** Mendiko Behor eta Zaldien Gipuzkoako lehenengo lehiaketa izango da.
- **12:00etan.** Aralarko Larreak irekitzeko suziria.
- **Ondoren.** Ardi Moztaileen desafioa: Jesus Mari Goitia 'Egoarre' eta Miguel Mari Sagatume 'Aimendi' -ren artean.
- **Bertsolariak.** Mikel Mendizabal eta Bixente Gorostidi.
- **17:00etan.** Erromeria, Larraitzko Trikitixa.

### Erakusketak eta salmenta

- **Goiz osoan zehar.** Asto, behi, behor, ahariak...; artisautza saioak; bertako produktuen salmenta, hala nola, ogia, sagardoa, gazta, taloa...

zako irekiera festari bukaera emango zaio.

### Mendiko behor eta zaldien Gipuzkoako lehen lehiaketa

Aurten, Gimibel elkartearen laguntza izan dute ohiko antolatzaileek. Hauek, Mendiko behor eta zaldien Gipuzkoako lehenengo lehiaketa egin nahi zuten eta egun honetan egitea egoki ikusi zuten. 11:30ean izango da eta 20 behor eta 10 zaldi izango dira parte hartuko dutenak eta Jose Antonio Irastortza basozainak azaldu duenez «parte hartzaile gehiagok eman dute izena baina balorazio bat egin dute eta batzuk kanpoan geratu dira».

Egunari amaiera emateko, 17:00etan, erromeria izango da Larraitzko trikitixarekin.

## Aiztondora Egunean parte hartu zuten guztiei «eskerrik asko»

### ERREDAKZIOA

Larunbatean, Aiztondora Eguna ospatu zuten Villabonan, euskal presoei eta euren familiei elkartzuna adierazteko. Aiztondo bailarako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak, «bihotzez eskerrak» eman nahi dizkie parte hartu zuten herritar zein eragile guztiei.

Goiz goizetik lanean jardun zuten hainbat lagunek eta beste hainbatek posible egin zuten hainbat ekitaldi gauzatzea. Guztiei eskerrak eman nahi izan dizkiete: «militantziaren balorerik onenak elkartzunaren mesedetan jartzea, ekitaldi guztiak posible egiteagatik, bazkaltzen bildu ziren 200 lagunei eta preso zein iheslarien senideei omenaldi beroa eta hungigarria egitea posible egin zuten guztiei». Eta gaineratu zuten «Villabonako kaleak beste behin



200 lagun bildu ziren bazkaltzeko. HITZA

elkartasunez bete zituzten diana, herri kirol, kantu jiran partehartu zuten guztiei».

Aiztondora egunak indartu egin dituela eta, Aiztondo bailarako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak dio: «euskal preso zein iheslari politikoen eskubideen aldeko

borrokan, oztopo eta eraso guztien aurrean, gure senide eta lagunei, babesa eta maitasuna adierazten jarraituko dugu».

Bukatzeko, «larunbatean jaso genuen elkartzuna eta babesa ezin daiteke ahanzturan utzi» azpimarratu nahi izan dute.

## Bordeleko feriarako izen ematea zabalik dago

**Gizartea** » Maiatzaren 2a baino lehen izena eman beharko da. Gutxienez, 30 lagunek taldea osatu beharko da.

### ERREDAKZIOA

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak, maiatzaren 8rako Bordeleko feriarako irteera antolatuko du. Larraul, Alkiza, Aduna eta Zizurkilgoei zuzendua dago.

Autobusak lehen bidaiariak Larraulera hartuko ditu eta 06:30etan izango du ordua. Jarraian, Alkizara joango da 06:45rako. Zizurkil Goian, 06:50an egotea espero da eta Adunan 07:00etan hartu beharko dute autobusa. Irteeraren kostua 26 eurokoa da eta bidaia aterata ahal izateko, gutxienez 30

persona apuntatu beharko dira. FERIA honetan denetatik aurki daitezke. Sail ezberdinetan banatuta daude. Nazioarteko pabiloian, munduko 40 herrietako azokak izango dira eta ibilgailu pabiloian lur orotako ibilgailuak, 4x4, jeep, karabanak... egingo dira. Nekazaritza aretoan, aldiz, aukera askotako ganadu eta Aquitaniako beste produktu asko izango dira. Eta gainera beste zenbait areto ere ikusgai izango dira.

Informazio gehiago Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko bulegoetan izango da. Edota 943 693 930 telefono zenbakira deitu daitezke. Ordainketa eta fitxa bete-tzearena, apuntatzerakoan, Aiztondoko bulegoetan egingo da. NAN zenbakia beharrezkoa da, sarrerak pertsonalak direlako. Izena emateko azken eguna, maiatza-

# LABek larunbatean kalera ateratzeko deia egin du

**Lana** » Tolosaldea eta Goierri hartzen dituen manifestazioa egingo dute maiatzaren batean Beasaindik abiatuta.

## ESKEINE LEGORBURU (GOIERRIKO HITZA)

Tolosaldeko eta Goierriko LAB sindikatuak eskualdeko manifestazioa eta jai antolatuta ditu maiatzaren batean ospatuko den Langileen Nazioarteko Egunerako. Beasaingo Barrendain plazatik Ordiziako plaza nagusira egingo dute manifestazioa, eta ospakizunek Ordizian jarraituko dute. Hasiera batean manifestazioan eta amaierako ekitaldian Ainhoa Etxaide LAB sindikatuko idazkari nagusia izango zela iragarri bazuten ere, azkenean Donostiako mobilizazioan egongo da.

Eskualdeetako manifestazioa 12:30ean hasiko da eta amaierako ekitaldiaren ondoren bazkaria egingo dute Ordiziako pilotalekuan Sarrigi eta Eguren bertso-lariekin.

## «Testuinguru berezia»

Maiatzaren bateko ekitaldien berri emateko LABeko ordezkariak egin zuten agerraldian adierazi zuten, «aurtengo maiatzaren lehena testuinguru berezi batek markatuta dator», ospakizun eguna «krisiaren erdian» kokatuta dagoelako: «Murrizketa, erreforma eta botere ekonomikoaren erasoen artean eta aldaketa politikoari bultzada emateko fasean bete-betean».



LAB sindikatuko ordezkariak prentsaurrekoan, Beasainen. ELEGORBURU

Krisiak eskualdeetan ere eragina izan duela azpimarratu nahi izan zuten; EREak, kaleratzeak, soldaten izozteak eta eskubide murrizketak ematen ari direla argudiatuz. Honen guztiaren aurrean ordea, LABek «alternatibak» badituela esan zuen, eta «eredu sozial eta ekonomiko berri baten aldeko borrokan» alternatiba horien ardatz nagusiak plazaratu zituen.

## Ardatzak

Kalitatezko lanpostuak sortzeko politika eraginkorrek martxan jarritzea; babes sozial duina eta euskal pentsio sistema publikoaren aldeko apustua; sektore publiko sendo, eraginkor eta indartsu baten beharrra; eta gizon eta emakumeen arte-

ko aukera berdintasuna dira LABek planteatzen dituen alternatibak.

Horiek lortzeko baina, «langileek erabakietan parte hartzeko eskubidea beharrezkoa» dela nabarmendu zuten, «erabakiak botere ekonomikoaren mesedetan ez izatea bermatuko duen modu bakarra parte-hartzea baita».

Aldaketa soziala ez-erik, aldaketa politiko ere «guztiz premiazkoa» dela irizten zuten sindikatuko ordezkariak, «alternatiba bakarra langileen borroka» dela gehituz. Horrela, «ezkertiar eta abertzale orori» maiatzaren bateko antolatutako ekitaldiari joateko deia egin diete LAB sindikatuko ordezkariak.

## Gutunak

### Zenbat erailketa gehiago?

Apirilak 28, kapitalismoak erailtzen dituen langileak oroituta eta erailketa hauek salatuzko Eguna. Edozein lanbidetan, eraikuntzan, garraio gintzan, nekazaritzan, amiantoak eraginda...

Urteak aurrera, erailketa hauen katea ez da eteten, segurtasunezko aholku ugari ematen dizkigute OSALAN edo ADEGI bezalako burges koadrila ustelek, baina urtetik urtera kapitalismoak eraildako langileak ereiten jarraitzen dute. Zenbat langile erailko ditu aurten kapitalismoak? Dagoeneko ezin du honela jarraitu.

Kapitalismoa faxismoa da. Ikusi besterik ez dago banketxeak, mul-

tinazional esplotatzaileak, burgesia, jauntxoak eta gobernuek zein ongi moldatzen diren langilegoaren kontura.

Langilegoa estutu, bizi baldintzak gehiago okertu, esplotazioa. Baina noiz arte? Zenbat erailketa gehiago jasan behar ditugu langileok?

Ordua da. Amets burgesak suntsitu eta errealtate gordinari begietara begiratzeko garaia da. Ordua da langileok gure tresnak kale-ateratzeko; mailu, alikate, aizkorak eta txurrak, arkatzak, eskuak, burua... eta erabiltzen hasi! Esplotatzaileei eta kapitalismoari barrikada gorri handi bat jarri behar diegu, eta erasora abiatu.

Maiatzaren leian elkar ikusiko gara. Kapitalismoa suntsitu!!!

**Autoskola Antikapitalista.** Ibarra.



## 1,7 milioi euroko inbertsioa

**ALEGIA** » Alegian dagoen Ederfil-Becker kooperatiban 1,7 milioi euroko inbertsioa egingo dute, horrek aukera emango diolarik «bere produkzio ahalmena nabarmenki handitu eta hainbat dimentsio eta espezifikazio teknikoak pletina fabrikatzeko». «Produkzio ekipamenduen berritze» hau dela eta, Enercon alemaniar multinazionalaren ordezkariak izan ziren atzokoan Alegiako lantokian. I.GARCIA



## harpidedun izateak badu saria

### 1 Liburua

**Imanol Murua Uriak**  
idatzitako  
**Loiolako hegiak**  
liburuaren 2 ale



### 2 Diskoa

**Mikel Gaztelurrutiaren**  
**The New Jazz Voices Ensemble**  
diskoaren 2 ale



### 3 Antzerkia

**Ez Dok Hiru** antzerki bikoteak eskainita  
**EUSKARAZETAMOL** antzezlanerako  
2 sarrera pare

**Maiatzak 21**, ostirala  
**20:30**etik aurrera  
Tolosako **Topic**-en



### 4 Kontzertua

**Alos Quarter** laukoteak  
eskeiniko duen kontzerturako  
**bi sarrera pare**

**Maiatzak 28**, ostirala  
**20:30**etik aurrera  
Tolosako **Topic**-en



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunetan, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen  
**TXOKOA hitza**



## Aresoko dantzari txikiak Legorretan

**ARESO** • Legorretan Dantzari Txiki eguna ospatu zuten den igandean, eta bertan izan ziren Aresoko dantzariak ere. Hamaiketako eta entseguak egin ostean, 12:00ak aldera hasi ziren kalejiran, herritik barrena. Bertan hiru puntu ezberdinetan talde bakoitzak bere saio-txoia egin zuen. Gero, 13:00ak aldera pilotalekuan talde guztiek ikurrinaren dantza egin zuten. Ondoren oholtxa gainean talde gehienek dantzatzko bat eskaini zuten. **HITZA**



## Alurr dantza taldekoak Nafarroaren Egunean

**IBARRA** • Iragan igandean Baigorriin (Nafarroa Beherea), Nafarroaren Eguna ospatu zen eta ekitaldien baitan, Alurr dantza taldeak emanaldi eskaini zuen. Basaizea elkarrekin gonbidatuta aritu zen Ibarrako taldea dantzan. Alurr taldeko 40 dantzari aritu ziren, eta *Izenik ez* izenburuko emanaldi eskaini zuten. Koreografia berri batzuk dantzatzen zituzten, horien artean aurtengo ikasturtean eta emanaldi berrirako prestatzen ari direnak. **HITZA**

# Lehen festa goseak asebetetzeko

**Gizartea** » Santa Krutz-en omenez, Orexan etzi ekingo diete jaiei eta Asteasuko Alizmendi auzoan berriz, larunbatean.

### ERREDAKZIOA

Udaberriko zizak bezala, pixkana-ka ateratzen eta loratzen hasi dira jaiek gure eskualdean. T antakak, banaka batzuk hasiko dira lehendabizi, aurrenekoak, Asteasu eta Oresakoak izango direlarik. Lehendabizikoak oso preziatuak izaten dira, jendea gogotsu baitago hauek dastatzeko, eta horretarako bide emango dute asteburu honetakoak.

Santa Krutzen omenez Orexan etzi ekingo diete jaiei, eta Asteasuko Elizmendi auzoan larunbatean. Bietan ere trikitixak eta erromeria ez dira faltako. Lehendabizikoan Oilarraren jaitsierak iragarri-

ko du jaiek hasi direla, eta bigarrenean, Simonenak. Dena den, Asteasun, haurrentzako ekitaldi batek emango die hasiera festei. Goiko auzotik barrena, duatloia jokatzeko da. Honen ondotik, zezen txiki eta poneyak izango dira.

### Etzi gauean, kantaldia

Orexan, festetako lehen egunean, bi euskal kantari oso ezagun elkarrekin abesten ikusteko eta entzuteko aukera izango da, Erramun Martikorena eta Mikel Markez, hain zuzenera.

Erramun Martikorena edo *Otsobi* abeslari baxenabartarra da, musika tradizionalaren arloan. Askoren ustez, Euskal Herriko ahotzik ederrenetakoa da. Mikel Markez oreretarra berriz, 15 urterekin hasi zen gitarra jotzen, eta 16rekin kantuak sortzen. Duela bi urte, aurreko diskoetako hainbat kantu esanguratsu berriz grabatu zituen bilduma berri batean.

### » EGITARAUAK

#### OREXAKO JAIAK

##### Apirilak 30, etzi

- **21:30.** Oilarraren jaitsierarekin jaiei hasiera emango diote.
- **Ondoren.** Herriko batukada taldea.
- **23:00.** Kantaldia: Erramun Martikorena eta Mikel Markez.

##### Maitzak 1, larunbata

- **16:30.** Antzerkia haurrentzat: Egizu lo tartalo (Dar-dar produktzioak).
- **Ondoren.** Merienda.
- **21:00.** Herri afaria.
- **00:00.** Dantza taldea Gabezin taldearekin.
- **Ondoren.** DJ BULL eta baratzuri zopa.

##### Maitzak 2, igandea

- **17:30.** Gaztelu puzgarriak haurrentzat.
- **19:00.** Bertso saioa Andoni Ega-

ña, Iker Zubeldia, Amaia Agirre eta Sustrai Colina bertsolariekin.

- **21:00.** Afari merienda. Ondoren, erromeria Iker eta Aladiar trikitilariarekin.
- **Maitzak 3, astelehena**
- **11:30.** Diana herriko txistulariekin.
- **13:00.** Apustua auzoen artean.
- **14:00.** Pintxo lehiaketa eta txakolin dastaketa.
- **17:00.** Bizikleta xelebreen karre-  
ra eta toka txapelketa.
- **Ondoren.** Oilarraren igoera.

#### ASTEASUKO, ELIZMENDIKO JAIAK

##### Maitzak 1, larunbata

- **23:00.** Duatloia. Egin beharreko probak: mendiko txirridularitza eta krosa.
- **16:00.** Mus txapelketa herrikoia.
- **16:30.** Txupinazoa eta Simonen jeitsiera.

- **Ondoren.** Haur jolasak.
- **19:00.** Haurrentzat Zezen txiki eta poneyak.
- **Ondoren.** Kupela taldea.
- **20:30.** Herri afaria Erretore Etxean.
- **23:00.** Erromeria Kupela taldearekin.
- **Goizaldera.** Txokolatada.

##### Maitzak 2, igandea

- **11:30.** Meza Santa Kruz ermitan.
- **Ondoren.** Hamaiketako, toka txapelketa eta trikitilariak: Laja eta Landakanda.
- **17:30.** Herri kirolak. Harria jasotzen: Urtzi Telleria. Aizkolariak: Jokin Alkizalete eta Mikel Belauntzan.
- **Ondoren.** Buruhandiak eta trikitilariak: Laja eta Landakanda.
- **21:00.** Simonen igoera.
- **Ondoren.** Laja eta Landakandarekin erromeria.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA**n jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

**HITZA**k Gipuzkoan **120.000** irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900



Tolosa eta Arrasateko kadeteak itzulerako partida jokatzen Beotibarren. HITZA



Albizturko eta Villabonako nagusien mailako pilotarien arteko partida. HITZA

## Herriartekoan Amezketeta, Albiztur, Alegia eta Tolosak egin dute aurrera

**Pilota** » Amezketak Hernani izango du aurkari, Albizturak Donostia, Alegiak Azkoitia eta Tolosak Azpeitia.

### ERREDAKZIOA

Sei herrik hasi zuten Herriarteko Txapelketa eta horietatik laurek egin dute aurrera: Amezketeta, Albiztur, Alegia eta Tolosa. Villabonak Albizturaren aurka galdu zuen eskualdeko derbyan eta Bidegoianek ezin izan zuten Oiartzunen aurkako lehian.

Albizturrek berriro ere kadeteetan eta nagusietan irabazi zion Villabonari eta jubeniletan galdu. Villabonako kadeteak ez ziren azaldu eta beraz Albizturrek 22-0 irabazi zuen. Jubeniletan 3-22 irabazi zuen Villabonak eta nagusietan 22-13 gailendu ziren etxean jokatzen zuten albizturarrak.

Orain Albizturrek, txapelketan parte hartzen ari den herri txikiak, herri handiena izango du aur-



Herriarteko txapelketan parte hartzen duten Alegiako pilotariak. HITZA

kari, Donostia. Gorka Arandia Albizturko taldearen arduradunak dioenez, «oso zaila dugu, baina jokatuz egin behako da. Ea sustoa ematea lortzen dugun». Joane-

partida Albizturaren jokatuko da, igandean, 11:30ean.

Villabonako taldeko Iñaki Lizasok azaldu duenez, «pentsatu beharko da taldea ateratzea merezi

duen aurrera egiteko aukera handirik izan gabe. Nik uste dut polita dela herriatik talde bat ateratzea. Egin behar den hausnarketa bat izango da».

### Tanto kopuruak erabaki du

Alegiak aurrera egin ahal izan du Txapelketan. Etxean bi partida galdu arren, Usurbilera gogoz joan ziren eta kanporaketari buelta ematea lortu zuten. Kadeteetan 3-22 irabazi zuten, jubeniletan ere irabazi 15-22 eta nagusietan 22-8 galdu. Beraz, herri bakoitzak hiru partida irabazi zituen eta Alegiak tanto kopuruengatik lortu zuen garaipena.

Azkoitia egokitu zaie hurrengo norgehiagokan alegiarrei. Joane-koa etxean jokatuko dute, ostiralean 19:00etan. Tradizio handiko herria da Azkoitia eta aurkari gogorra izango da. Usurbilgoen aurka jokatutakoan bezala, jendetza eta giro ona espero du Alegiako taldeak pilotalekuko harmailetan.

Bere aldetik, Amezketak berriz ere hiru partidak irabazi zizkion

Zestoari. Kadeteetan 3-22, jubeniletan 16-22 eta nagusietan 13-22 izan ziren emaitzak. Xalton Zabala Amezketako taldearen arduradunak azaldu duenez, «esperientzia polita izan da eta bi herriko pilotarien artean oso giro ona izan da». Hurrengo norgehiagokan Hernaniren aurka dute eta hori «beste gauza bat» izango dela dio Zabalak: «Ezagutzen ditugu eta esperantza handirik ez dugu pasatzeko». Joane-ko partida Amezketan jokatuko da, larunbatean 18:00etan.

Tolosak ere aurrera egin du Leidorren jokatutako itzulerako hiru partidak irabazita. Kadeteetan 22-13, jubeniletan 22-19 eta nagusietan 22-9 irabazi zuten. Aspaldi parte hartu gabe zegoen eta lehenengo kanporaketa gainditu dute. Asteburuan Azpeitiaren aurka jokatuko dute joane-ko partida.

Bidegoian Txapelketatik kanpo gelditu da. Oiartzunen jokatuz gero itzulerako partidak eta hiruk galdu zituzten: kadeteetan 9-22, jubeniletan 16-22 eta nagusietan 7-22. Luis Galarraga taldeko arduradunak nabarmendu duenez, «urte bat gehiago parte hartu dugu eta eskerrak ematen dizkiogu herriko jendeari bere bultzadarengatik eta jarri duten giroarengatik, hurrengo urtean ere parte hartzeko laguntasuna emanez».

## Rallysprintekoan balantze baikorra

### ERREDAKZIOA

III. Nafarri Rallysprinteko antolatzaileek, Irurako Ikastolak eta Sardara motor elkarteak, gustura azaldu dira balantzea egiterakoan. «Eguraldia bikaina izan zen eta errepeide bazterrek jendez gainezka ikusi ziren. Parte-hartzaileek ere ederki gozatu ahal izan dute egunaz eta ibilbideaz», azaldu dute. Ikusleen portaera ere nabarmendu dute: «Seguratasuneko arduradunen oharrak bete dituzte eta ez da inolako ezbeharrik gertatu». Bestalde, antolatzaileek esker-erak eman dizkiote rallysprinta antolatzeko «ezinbesteko laguntza eman diguten lau udalari; Amezketeta, Ikaztegieta, Alegia eta Oren-



III. Nafarri Rallysprintaren podioa. HITZA

daingoei. Baita Irurako Udalarire, eta nola ez, lanean borondatetz ibili diren guztiei». Horrez gain,

rallysprinterak joan ziren autozale guztiei ere eskerrak eman dizkiote antolatzaileek.



## Aristorena eta Agirre txapeldun

**LEITZA** • Iera Agirre eta Saioa Aristorena Aurrera pilota eskolakoek Oiartzungo Euskal Herriko Nesken Pala Txapelketa irabazi dute asteburuan. 25-6 irabazi zieten aurkariel. HITZA



24°  
16°

GOIZA	EKAITZA
ARRATS.	EKAITZA
BEROENA	21°
HOTZENA	12°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendariak:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdia

■ **Tolosa.** Autokarabana dutenen bilera Kultur Etxean 20:30ean.

### Elkarretaratzea

■ **Tolosa.** Saharako presoen aldeko elkarretaratzea Udaletxean 19:30ean.

### Antzerkia

■ **Zizurkil.** Txatxilipurdiren *Mundua koloretan* Atxulondo kultur etxean 10:00etan eta 11:30ean.

### Hitzaldia

■ **Tolosa.** Engels Ateneoan 19:30ean 'Kapitalisten erasoan eta langile mugimendua' ren inguruko hitzaldia euskaraz.

### Zinema

■ **Tolosa.** Euskarazko Film Laburak Kultur Etxean 20:00etan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## A Agurrak



### Zorionak Olatz!

Gaur 10 urte. 10 muxu etxekoan partetik.

Gaur da Aste Santuan ateratako argazkiak XI. HITZA Argazki Lehiaketara bidaltzeko azken eguna. Ilgandean, maiatzak 2, kaleratuko ditugu zortzi argazki finalistak.

# Gaurkoa da azken eguna



**LEITZA** ● A. Aranburuk Leitzarango ibaian ateratako argazkia bidali du: «Gizonak urtegie bota, txorie etorri ta amuarrairentsi-hori ikusteko ez dago urruti ibili beharrik-». A. ARANBURU

### ALEGIA

Patxi Renobalesek argazki hau bidali du eta «oinetako en atsedean eskertua» bezala bataiatu du. PATXI RENOBALÉS



**TOLOSA** ● Xabier Esnaolak Aste Santuan, eguraldi ederra lagun, Orioko hondartzan arrantzalearen bizikletari ateratako argazkia bidali du. XABIERESNAOLA



**TOLOSA** ● Irene Arsuagak Tarragonako kostan ateratako argazkia bidali du. IRENE ARSUAGA

argazki lehiaketa

**GAUR, argazkiak bidaltzeko AZKEN EGUNA!**

NORA BIDALI?

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora edo HITZAren Tolosako edo Leitzako egoitzetara **Apirilaren 6tik 28ra**

**HITZA** aste santuko argazki lehiaketa

1. Saria



landetxe bi

3. Saria



2. Saria



K,